

**Reala** ♦ Euskarria erabakitzea bakarrik falta zaio Kraussi, Antia zentral postura itzuliko baita

# Behartutako aldaketak baino ez

*Loren eta Gomez zigortuak bakarrik irtengo dira talde titularretik*


Asier Errasti / Donostia

AZKEN jardunaldietan Realak emandako maila ona dela eta, badirudi Bernd Krauss entrenatzaileak beharrezko aldaketak bakarrik egingo dituela Racingen aurkako partidurako. Hala, ziurrenik Gomez eta Loren zigortuen ordezkoak bakarrik sartuko dira Realeko talde titularrean.

Gainera, badirudi Lorenen ordezkoa zein izango den dagoeneko argi daukela Bernd Krauss alemaniarrek. Izan ere, atzo goizeko entrenamenduan jokaturako partidutxoan, Zaragozan titular izandakoekin aritu zen Mikel Antia zentrala. Partidu horretan, hamar jokalariko bi talde aritu ziren eta, ikusitakoaren arabera, euskarri postuan nor ariko den bakarrik dago zalantzan. Ildo horretan, kontuan izan behar da Apelazio Batzordeak atzo gauean erabaki zuela Juan Gomez argentinarrari jarritako partidu bateko zigorra berrestea.

Gomezzen zigorra baieztatu ondoren, Igor Jauregi da euskarri gisa aritzeko aukera gehien duen jokalaria, orain artean hainbat partidu jokatutako baititu postu horretan. Hala ere, Jauregik argi du bere lehen helburua: «Azken partiduan deialditik kanpo izan ondoren, berriz ere deialdian sartzea da momentu honetan nire nahia».

Hurrengo urtean European jokatzeko aukerak ez galtzeko, Realak behar-beharrezkoa du igandean Racing



Apelazio Batzordeak atzo gauean Gomezzen zigorra berrestu ondoren, Jauregik joka dezake igandean euskarri gisa.

## IGOR JAUREGI

■ ■ ■ «European sartzeko ilusioa mantentzeko, igandean irabazi beharra daukagu»

menperatzea. Jauregik badaki horretarako nola jokatu beharko duten: «Guk gure partidua egin, eta jokoa geuk eraman beharko dugu. Izan ere, European sartzeko ilusioa bukaera arte mantendu nahi badugu, igandean irabazi beharra daukagu».

European izateko aukerak aztertzerakoan, zazpigarren postuan bukatzen duen ere ikusi behar da Jauregirentzat, «zazpigarren postua ez baitaikaugu urrutia». Horregatik, Realak aukerak «azkene-ra arte» izango dituela uste du jokalaria tolosarrak.

## «Zenbaitek zentzurik ez duen giroa sortu dute nire inguruan»

AZKEN asteetan lesio-natuta izan ondoren, asko hitz egin da Javier De Pedro antiguarrrak Realean duen garrantziarekin. Izan ere, jokatu ez dituen partiduetan Realak itxura ona eman duela eta, hainbat komunikabidek auzitan jarri dute De Pedrok taldean duen garrantzia.

Gauzak horrela, kirol egunkari batean zenbait bera «saldu nahian» dabiltzala esan zuen herenegun De Pedrok. Horren inguruan, zera azaldu zuen atzo Zubietan jokalaria antiguarrrak: «Zenbaitek zentzurik ez duen giroa sortu dute nire inguruan. Nik gauzak ahal du-



Javier De Pedro.

dan ondoen egiten ditut eta ondoren entrenatzaileak erabaki behar du jokatu behar dudana edo ez. Aldiz, bi morroik nire inguruko pelikula bat sortu dute eta, egia esan, takilara eramanez gero ondo ibiliko litzateke. Saldu beharra daukate, eta horretarako zerbait egin behar dute».

Andoni Iraola Realeko prentsa arduradunak ere argi asko utzi zuen De Pedro ez dagoela salgai. Antiguarra Iraolak esandako arekin «ados» azaldu zen, eta iaz beste talde batera joateko aukerak izan zituen kontratua luzatu eta Realean geratu zela gogoratu zuen.

## Entrenamenduetan parte hartu gabe jarraitzen du Graciak

Bigarren egunez jarraian, Javier Graciak atzo ez zuen Realaren entrenamenduan parte hartu. Iruñearrak bihurritu txiki bat du orkatilan, eta ez dirudi Racingen aurkako partiduan jokatzeko aukerarik duenik. Bestalde, Kuhbauerrek München jarraitzen du.

## Reala-Real Madril partidua eskainiko du ETB1ek

Euskal Telebistako lehen kateak zuzenean eskainiko du Realak eta Real Madrilek maiatzaren 8an, larunbata, Anoetan jokatuko duten Ligako partidua. Oraindik ez da zehaztu partidua gaueko 21:00etan edota 21:30etan jokatuko den, Fortako telebista kateek partidua ordu erdi atzeratzeko nahia agertu baitio te Donostiako taldeari.

## Realak gaur taldearen urrezko intsignia ezarriko die azken 50 urteetan bazkide izandakoei

Azken 50 urteetan Realeko bazkide izandako guztiek taldearen urrezko intsignia jasoko dute gaur. Ekitaldia Donostiako Maria Cristina hotelean egingo da, arratsaldeko 19:30etan, eta jokalariek, entrenatzaileek eta zuzendaritzako kideek hartuko dute parte. Guztira, 72 bazkidek jasoko dute Realaren urrezko intsignia.

## Zubietako handitzeko baimena emango du Donostiako Udalak

Realak Zubietako egoitzak berri eta handitzeko egindako eskaerari baiezkoa emango dio datorren asteartean Donostiako Udaleko gobernu batzordeak. Realaren asmoa hiru futbol zelai —bat estalia eta mila pertsona hartzeko modukoa— eta hiru eraikin egitea da. Eraikin horietan jokalaria gazteak bizitzeko erresidencia, aldagelak, gimnasioak, prentsa areto berria eta abar egingo dira. Era berean, Zubietako egungo tribuna estaltzeko asmoa ere badu Realak. 633 miloikoa da lanen aurrekontua. Lan guztiak zortzi urte barru bukatuak izatea espero du Realak.